

# Egibideko Inmaculada Zudaireren Omenez



**Julen Llanos**  
Responsable de  
Privada. Araba

@ julenllanos@  
euskadi.ccoo.es

**Azken garai honetan CCOO sindikatuan negoziazio kolektiboaren aldeko kanpaina sendoan murgilduta gaude. Ekainaren 12an, Bilboko Campos Aretoan, ordezkarien asanblada orokorra ospatuz eta horren ondoren Bilboko kaletatik manifestaldia eginez negoziazio kolektiboaren defentsan azaldu ginen.**

Campos Aretoan izandako asanbladaren barruan, negoziazio edota hitzarmen kolektiboaren alde nabarmendu diren zenbait pertsonari omenalditxoa eskaini zitzaion. Niri, Irakaskuntza Pribatuko arduraduna izanik, merezitako omenaldi hori jasotzeko ea proposatzeko moduko pertsonaren bat ezagutzen nuen aldeaz aurretik galdetu zidaten. Galdera entzun bezain laster burura etorri zitzaidan izena Inmaculada Zudaire izan zen.

Inmaculada Zudairek Gasteizko Diocesan (egungo Egibide) zentroan lanean urteak eta urteak eman ditu. CCOO sindikatuan afiliatua izanik, bereak eta guztion eskubideak aldarrikatzen, eta baita sendotzeko eta zabaltzeko ahaleginetan ere, beti aritu izan da. Ikasturte honetan bertan, errelebo-kontratua eskuratzeko adina betetzeko garaian enpresak aplikatzen zuen "akordioa" bidean, nahi gabean, agertu eta gurutatu zitzaion. Inmaculadak 2014ko abenduan betetzen zituen beharrek urteak baina... Egibide zentroan errelebo-kontratu guztiak irailaren batean sinatzen ziren, eta horrekin batera beti ere %75 / %25 portzentajeak finkatuz.

Honen aurrean Inmaculadak, bere eskubideak zeintzuk ziren ezagutuz eta bere

egoeraz jabetuz, enpresari bere desadostasuna azaldu zion. Are gehiago, Egibideri bere urtebetetze egun beretik hasita, legeak dioen bezala eta hitzarmenak agintzen duen modura, %85 / %15 portzentajeak jasotzen zituen errelebo-kontratua exijitu zion. Tira-bira luze eta desatsegina bizi behar izan zuen, hori bai, etsi gabe mantentzeko indarrez armatua. Inmaculadak behin eta berriro galdetu zion Egibide enpresari ea Euskadiko Hitzarmen Kolektiboa aplikatuko zuen ala ez, 2013ko ekainetik aurrera Kristau Eskolak, aldebakarreko erabakia ondoriorik eta lan-erreforma aprobetxatuz, bere ikastetxe guztietarako Estatuko Hitzarmena erreferentziatzen hartu izan zuela jakinda.

Tira-bira luzea, bai, baina Inmaculadak gogor ekin zion bere eskubideak defendatzeko bideari. Azkenean, berarentzat ez ezik egoera horretan dauden beste lankide guztiontzat ere, enpresaren politika aldatzea eta Euskadiko Hitzarmena Indarrean jartzea bai ongi lortu ere!

Hitzarmenaren eta negoziazio kolektiboaren defentsa-lanean eredia izanik, omenaldira etortzera gonbidatu genuen. Berak ordezkari, apaltasun osoz eta eskerrak emanez, gonbidapena baztertu eta hauxe esan zigun: bere ustez, egin beharrekoa besterik ez zuela egin eta beraz, uste horren ondorioz, omenaldiren beharrik ez zegoela.

Hona hemen, bada, nirea. Mila esker Inmaculada. 

